

8.FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa era guztietako kontsumitzaileetara bideratuta egongo da, pertsona guztien gustuetara egokitzen diren produktuak eskainiko ditugulako. Oso mesedegarria izango da osasuntsuki jan nahi dutenentzat eta, aldi berean, janariaz gozatu nahi dutenentzat. Beraz, funtsezko jardueren artean kontsumitzen dugun janariaren kalitatea eta nondik datorren jakinaren gainean egotea da, gure bereizgarritasun bat gure produktua baserritik etxera eramandakoa izatea baita.



Horrez gain, zeharo garrantzitsua da gure arteko harremana ona izatea, gure bezeroak hori ikusiko baitute eta horrek haien janorduan eragina izango baitu; beraz, lasaitasuna eta erosotasuna transmititu nahi dugu, irribarre handi batekin eta jatortasunez jokatzuz.



Gainera, ekoizpenaren aldetik, lehenik eta behin furgoneta guztiz aldatu behar dugu ezinbestekoak diren baldintzak betetzeko. Bestalde, web bat sortuko dugu merkatuan posizionatzeko, zalantza guztiak argitzeko eta informazioa emateko gure bezeroei.

